

# Arte eszenikoak

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**Unibertsitatera  
Sartzeko Ebaluazioa**

**UPV/EHU**

**2017**

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu azterketako orri bakoitzean kodea jarri behar duzula.***

Azterketa egiteko, 90 minutu dituzu. Azterketako bi aukerek atal berberak dituzte (hiruna atal):

**1. atala. Obraren iruzkina eta analisisa (4 puntu)**

Alderdi hauen arabera egin behar dira iruzkina eta analisisa:

- a) Obraren estilo- eta argumentu-ezaugarrien azterketa.
- Antzerki-generoa (0,5 puntu)
  - Argumentua eta obran ageri den gatazka nagusia (0,5 puntu)
  - Iritzi pertsonala, aztertutako obrari buruzko argudio teknikoetan oinarritua (0,5 puntu)
  - Argumentu horrek gaurkotasuna duen ala ez (0,5 puntu)
- b) Egoera eta testuinguruaren karakterizazioa.
- Obraren fitxa: egilea, garaia, kokapen geografikoa (0,5 puntu).
  - Egilearen ideia artistikoak (0,5 puntu).
  - Aztertutako obra zer alderdi soziokultural eta estetikotan kokatzen den (0,5 puntu).
  - Garai horretako antzerki- eta arte-korronteak (0,5 puntu).

Antzerki-obraren iruzkinean eta analisisian, hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa eta gaiaren oinarriari buruzko ezagutzak.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu labur bati buruzko iruzkina (3 puntu)**

Testu-iruzkina orri betekoa izango da gehienez, eta alderdi hauek aztertu behar ditu:

- Testuko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak identifikatzea (1 puntu).
- Testuan agertzen diren zenbait hitz edo termino tekniko estetiko edo interesgarri adieraztea eta azaltzea (1 puntu).
- Testuan ageri diren ideiei buruzko iritzi pertsonala, zure eszenaratze-esperientzietan oinarritua (1 puntu).

**3. atala. Termino teknikoetarako buruzko galderak (3 puntu).**

Erantzunek argiak eta laburrak izan behar dute. Bost lerro nahikoak dira bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa balioetsiko da, eta 0,5 puntu emango zaio bakoitzari.

## A AUKERA

**1. atala.- Iruzkina eta azterketa. (4 puntu)**

*Hirugarren Reich-aren izua eta miseria.* Bertolt Brecht. Itzulpena (gaztelaniara): Miguel Sáenz.

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. (3 puntu)**

*Edipo erregea* obraren kritika. Sofokles / Alfredo Sanzol. Teatro de la Ciudad . Marcos Ordóñezek idatzia (Babelia, 2015-09-05)

**3. atala - Termino tekniko hauek definitzea. (3 puntu)**

1. Supermarioneta
2. Ekintza-batasuna
3. Oroitarazlea edo hitz-emailea
4. Ohitura-komedia
5. Drama erromantikoa
6. Hondoko oihala

---

## B AUKERA

**1. atala.- Iruzkina eta azterketa. (4 puntu)**

*“Hamlet” III. ekitaldia, 1. eszena.* William Shakespeare

**2. atala. Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina. (3 puntu)**

*Hiru xistera* obraren kritika. Miguel Mihura. Estrella Savirón-ek idatzia (2013ko abendua)

**3. atala - Termino tekniko hauek definitzea. (3 puntu)**

1. Katarsia
2. Tramoiarria
3. Tragedia grekoa
4. Arlekina
5. Fartsa satirikoa
6. Proszenioa edo eszenaurrea

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

**A AUKERA.- Iruzkina eta azterketa.**

*Hirugarren Reich-aren izua eta miseria.* Bertolt Brecht. Itzulpena (gaztelaniara): Miguel Sáenz.

*Spandau, 1937. Langile batek, etxera itzultzean, bizilaguna aurkitu du.*

BIZILAGUNA: Gabon, Fenn jauna. Zure emazteari ogi pixka bat eskatu nahi diot. Irten egin da une batez.

GIZONA: Atsegin handiz, Dietz andrea. Zer iruditzen zaizu lortu dudan lanpostua?

BIZILAGUNA: Bai, orain guztiek dute lana. Motor-fabrika berrietan zaude zu, ezta? Bonbardaketariak egingo dituzte han?

GIZONA: Gero eta gehiago eta gehiago.

BIZILAGUNA: Espainian behar dituzte.

GIZONA: Zergatik, zehazki, Espainian?

BIZILAGUNA: Gauza asko esaten dira hara bidaltzen denari buruz. Lotsagarria da.

GIZONA: Kontuz ibili zer esaten duzun.

BIZILAGUNA: Zu ere haien alde zaude?

GIZONA: Ni ez nago inoren alde. Nire lana egiten dut. Nora joan ote da Martha?

BIZILAGUNA: A, beharbada prestatu egin beharko zuen [ogia]. Baliteke zerbait desatsegina izatea. Sartu naizenean, postaria zegoen hemen, eta zure emazteari gutun bat emana zion, aztoratu duena. Pentsatu dut ez ote zen hobe izango ogia schiermandarrei eskatzea.

GIZONA: Hara! (*dei egiten du*) Martha!

*Emaztea sartzen da. Lutoz jantzia.*

GIZONA: Zer gertatzen zaizu? Nor hil da?

EMAKUMEA: Franz. Gutun bat iritsi da.

*Gutun bat ematen dio.*

BIZILAGUNA: Jainko maitea! Zer gertatu zaio?

GIZONA: Istripu bat izan da.

BIZILAGUNA: (*Fidakaitz.*) Hegazkin-pilotua zen, ezta?

GIZONA: Bai.

BIZILAGUNA: Eta istripu bat izan du?

GIZONA: Stettin-en [Mendebaldeko Pomerania, gaur egun Polonia]. "Gau-ariketa batean maniobra-zelaian", dio hemen.

BIZILAGUNA: Ez da istripua izan! Ezin dira etorri istorio horrekin.

GIZONA: Hemen zer jartzen duen esaten dizut, besterik ez. Zelaiko Estatu Nagusitik bidali dute gutuna.

BIZILAGUNA: Eta berak idazten al zizuen azken aldi honetan? Stettin-etik?

[...]

BIZILAGUNA: Oso ondo estaltzen dute dena. Ekintza heroikotzat hartzen dute egia ez zabaltzea. Alkatetzako batek harro esaten zuen zein zuhurki ezkutatzen duten beren gerra. Bonbardaketari horietako bat botatzen dutenean eta barrukoek paraxutean salto egiten dutenean, beste bonbardaketarietatik tiro egiten diete airetik beren kideei, aukerarik izan ez dezaten gorriei [*Espainiako errepublikarrak*] esateko nondik datozen [*Alemania*].

EMAKUMEA: (*ondoezik jartzen ari da.*) Emadazu ura, Herbert, mesedez, ondoezik nago oso.

BIZILAGUNA: Ez zintudan gehiago aztoratu nahi, baina, dena estaltzen dute-eta! Oso ondo dakite krimen bat dela eta beren gerra ezkutatu behar dutela. Baita hemen ere. Istripua ariketak egitean! Zer ariketa? Gerra-ariketak!

GIZONA: Behintzat, ez ezazu hain ozen hitz egin. (*Bere andreari.*) Hobeto al zaude?

ARTE ESZENIKOAK

ARTES ESCÉNICAS

BIZILAGUNA: Zu ere hildakoen moduan isiltzen den horietakoa zara. Gutun horretan duzu frog!

GIZONA: Isilduko al zara behingoz?

EMAKUMEA: Herbert!

BIZILAGUNA: Bai, behingoz isiltzeko! Lana aurkitu duzulako! Baina zure koinatuak ere bai! Hain zuzen ere, "istripua" izan du motor-fabrikan egiten diren gauza horietako batekin.

GIZONA: Hau gehiegizkoa da, Dietz andrea. Holako gauzetan lan egiten dudala esaten duzu! Eta zertan lan egiten dute besteek? Zertan lan egiten du zure senarrak? Lanparatan, ezta? Eta ez al da hori gerrarako? Argiztatzeko baino ez da! Baina, zertarako da argiztapena? Zer argiztatzen du? Argiztatzen al dira tankeak? Edo gerraontziak? Edo gauza horietako bat? Berak lanparak besterik ez du egiten! Ene Jainkoa! Jada ez dago gerrarako ez den ezer ere! Non aurkituko ote dut lana neure buruari esaten badiot: baina ez dadila izan gerrarako! Goseak hil beharko ote dut?

BIZILAGUNA: (*Kikilduta.*) Nik ez dut esaten goseak hil behar duzunik. Lana onartu behar duzu, jakina. Kriminal horiei buruz bakarrik ari naiz. Eskulan-kontratazio ederra da!

GIZONA: (*Serio.*) Eta zuk ere ez zenuke ibili behar hor zehar beltzez jantzita. Ez zaie gustatzen.

BIZILAGUNA: Egiten dituzten galderak dira gustatzen ez zaizkienak.

EMAKUMEA: (*Lasai.*) Uste duzu lutoa kendu behar nukeela?

GIZONA: Bai. Bestela, laster galduko dut lana.

EMAKUMEA: Ba, ez dut kenduko.

GIZONA: Zer esan nahi duzu?

EMAKUMEA: Ez dudala kenduko. Nire neba hil egin da. Lutoa eramango dut beragatik.

GIZONA: Jantzi hori izango ez bazenu, Rosak eresia gure ama hil zenean, ezingo zinateke lutoz jantzi.

EMAKUMEA: (*Oihuka.*) Inork ez dit galaraziko lutoa eramatea! Haiek sakrifikatu badute, nik negar egin ahal izango dut, gutxienez. Inoiz ez da izan halakorik! Inoiz ez da ikusi munduan halako zitalkeriarik! Kriminal hutsak dira!

BIZILAGUNA: (*Gizonak, beldurrak mututurik, eserita jarraitzen du.*) Fenn andrea!

GIZONA: (*Ahotsa laztuta.*) Hola hitz egiten baduzu, nire lanpostua galtzea baino zerbait okerragoa gertatuko zaigu.

EMAKUMEA: Eraman nazatela! Badituzte emakumeentzako kontzentrazio-esparruak ere. Sar nazatela batean, ze niri ez zait berdin haiek nire anaia hil izana! Zeren bila dabilta Espainian?

GIZONA: Utziozu Espainiaz hitz egiteari!

BIZILAGUNA: Nahigaberen bat izango duzu azkenean, Fenn andrea!

EMAKUMEA: Eta isilik egon behar dugu, orduan, zuri lanpostua ez kentzeko? Hil egingo garelako haien bonbardaketariak fabrikatzen ez baditugu? Bestela ere denok hiltzeko? Franz bezala? Berari ere bilatu diote postu bat. Metro bat behera. Hemen ere izango zuen postu hori!

GIZONA: (*Isilarazi nahi du.*) Ixo! Horrek ez du ezertarako balio!

EMAKUMEA: Zerk balio du, orduan? Egizu balio duen zerbait!

**A AUKERA.- Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

*Edipo erregea* obraren kritika. Sofokles / Alfredo Sanzol. Teatro de la Ciudad (2015-05-09)  
[http://cultura.elpais.com/cultura/2015/05/06/babelia/1430909537\\_901774.html](http://cultura.elpais.com/cultura/2015/05/06/babelia/1430909537_901774.html)

Zer esan orain *Edipo erregeari* buruz? Txunditzen nauela oraindik ere. Bilbe perfektua, premisa ederra: ikertzaileak aurkitzen du bera dela hiltzailea. B zinema zaharraren ekonomia eta kontzentrazioa ditu: dena ordubete pasatxoan gertatzen da. Sanzolek ez du ia ezer moztu: kuru bat, esan zidan, esaldi batzuk. Bazkalondo baten denbora, eta nolako bazkalondoa! Litekeena da hori izatea Madrileko La Abadía antzokian egin duen muntaketaren eragilea. Tira, hori eta, batez ere, “tragedia familiar” kontzeptua, baina prosopopeiarik gabe. “Familia-berriketak dira”, Tenoriok esango lukeen moduan. Eszenaratze-idea paregabea: mahai bat eta otorduaren hondakinak. Begi-bistan. Herriko plazan bertan, nolabait esateko. Mahaia italiarragoa da grekoa baino, *Mamma Roma* gisakoa. Noizean behin, gelditasun horrek nahasi egiten nau, behartua iruditzen zait, ez oso organikoa, eta altxa daitezen nahi dut (lasai, dena iritsiko da), baina soiltasun-bainu gisa ulertzen dut, keinu-gehiegikeria posibleen eztigarri. Eserita egotea konpentsatzeko, beharbada, iruditzen zait Juan Antonio Lumbreras oso azkar doala (hizketan) lehen herenean. Kosta egiten da aktore bikain hori aulki batean itsatsita ikustea, argiaren kablea baino elektrikoagoa baita. Sanzolekin *Godot* egin zuenean, honela idatzi nuen: “Hitz-erritmo sukarrezkoa eta era berean arina: ikuskizunaren motor alaia da”. Dena dela, Becketten *stacatto* eta Sofoklesen erritmoa ez dira gauza bera: Sanzolen bertsioa bizia eta ozena da, eta askoz hitz gehiago dago esaldi bakoitzeko. Eta ulertzekoa da *Edipo aztoratuta* egotea, baina ez hainbeste eta hain goiz. Enuntziatio-abiadura horrek zikindu egiten ditu pasarteak, eta tratatzeak eta nolabaiteko hitz-lardaskatze bat eragiten. Baliteke, eta ulertzekoa da, lehen egunetako nerbioak izatea: oso litekeena da Lumbrerarek jada arnasbidea aurkitu izana pasarte horretan. Paco Déniz Kreon da, eta oso ondo ematen du pertsonaiaren zentzuzkotasun funtsezkoa, zeina desarmatzen ikusiko baitugu (pertsonaia, ez aktorea) *Antigona*, non estatu-arrazoiak pisu handia baitu. Hemen, oraindik ez: biziki gustukoa dut hizketaldi bat, non *Edipo* konbentzitzen duen ez diola traizioa egin, behar duen botere guztia –eta purpuraren pisurik gabe– duelako bigarrena izanda.

Berealdikoak, zehatz-zehatzak dira ‘Adentro’ko lau interpreteen lanak; sotila eta irmoa Tristán Ulloaren eszenaratzea.

Funtzioko aktore emakumeak, bitxia bada ere (eta zorionez), paper batean baino gehiagotan enplegatzen dira. Hasteko, korua, Natalia Hernándezen eta Eva Trancónen esku. Batera jaurtitzen dute beren testua, eta goraiatzeko moduko araztasunez. Lehen esaldiak entzutean, Disneyren katagorriak etorri zitzaizkidan burura, baina laster asko harrapatu ninduten beren konjuruan, Chabrolen *Abenturako* sorgin domestikoek bezala: urruneko erreferentzia, baina halakoa da oroimena. Eta, gero, ezin hobeto moldatzen dira bi ahotsetan adierazten zaila den sentimendu batekin: benetako pairamena, *Edipo* jasan beharko duenagatik. Natalia Hernández ez da korukide soilik; korifeo ere bada, garrantzitsuagoa. Eta apaiza, are garrantzitsuagoa. Eta mirabea, non distira berezia lortzen baitu: gogora etortzen zait orain, *Ediporen* oinetan, animaliatxo dardarti baten moduan, sortu duen istilua dela eta. Bide batez, nola pasatzen da korukide izatetik mirabe izatera? Sanzol irtenbideak: mahai azpitik eta, *alehop*, haren *Barealdi magikoa* obraren kutsuarekin. Eta, azkenean, Ismene da, baina mutua, haren ahizpa *Antigona* bezala. Eva Trancón korukide eta *Jokasta* gisa aritzen da. Erregina amak (inoiz baino hobeto esana) ez du paper handirik baina bai tentsio handia: aktoreak adierazi behar du, denbora laburrean, zer dagoen bi hauen artean: “hori ez da ezer izango” eta “hobe duzu jada



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2017ko UZTAILA

EVALUACIÓN PARA EL  
ACCESO A LA UNIVERSIDAD

JULIO 2017

## ARTE ESZENIKOAK

## ARTES ESCÉNICAS

uztea, Edipo”. Oker ez banago, bera altxatzen da lehena mahaitik, mezularia iristen denean: logikoa da. Eva Trancónek modu soil eta atxikian eratzen ditu esaldiak, baina, atal horretan guztian, askoz gehiago esaten du begiradarekin, larriminez, gupidagabe behera datorren sabai baten moduan. Jokastaren jakinarazpenak entzun ondoren pasarte izugarri honekin erantzuten duenean aurkitzen du Lumbrerasek bere erritmoa, bere dentsitate eta emozioa: “Eguzkiaren argia, ez utzi niri zu berriro ikusten gaurko egunaren ondoren, zeren eta behar ez nituenengandik sortua bainaiz, behar ez nuenarekin izan baititut ondorengoak eta behar ez nuena hil baitut”. Esan ote daiteke gehiago gutxiagorekin? Hunkigarria izango da berriro azken eszenan, jada oin bat Korinton duenean, itsuturik, bere alabak itsuaurreko dituela.

Amaierarako utzi dut Elena González, berak hunkitu baininduen gehiena. Gauza bera gertatu zitzaidan *Henrike VII.a* obran: zein ondo lortzen duen aktore bikain horrek bere ahotsa entzunaraztea; hori da handitasuna, hori da indarra, hori da segurtasuna kokatzean eta bidaltzean. A zer mina haren Tiresias pertsonaian, saihesti ezineko patu horien pisuaz zamatuta, herriko azti baten antzera (sorgin eta igarle eta emagin gisa irudikatzen duzu, Gutiérrez Aragónen pertsonaia baten moduan), eta zer araztasun narratiboa mezulariaren rolean, itxiera katartikoa kontaktzen duela, soberazko keinu bat ere gabe, ahots sakonaz, antzinako ahotsaz. Bere buruari galdetzen zion Sanzolek ea Sofoklesekin ironia tragikoa patentatu ote zuen honen moduko esaldiekin: “neure aitaren beraren hilketaz balitz bezala arduratuko naiz Laioren hilketaz”. Neure buruari galdetzen diot orain ea berak asmatu ote zuen eremuz kanpoko ere (Jokastaren heriotza, Ediporen akitzea), Racineri hainbesteko jokoa emango ziona *Fedran*: Teramene-ren monologoa, mezulariaren monologoaren hain antzekoa.

Marcos Ordóñez

**Zuzendaritza eta egokitzapena:** Alfredo Sanzol - **Aktoreak:** Juan Antonio Lumbreras, Elena González, Paco Déniz, Natalia Hernández eta Eva Trancón. – **Produkzioa:** La Abadía antzokia, Madril. Adentro.

---

**B AUKERA.- Iruzkina eta azterketa.**

“Hamlet” III. ekitaldia, 1. eszena. William Shakespeare

*Hamlet sartzen da.*

HAMLET.- Izan, ala ez izan: horra hor auzia; ea nobleago zaigun fortuna gaitzaren harri eta gezikadak pairatzea, ala nahigabe-itsaso baten aurka altxaturik aurre egin eta azkena ematea nahigabeoi? Hiltzea, lo egitea, besterik ez; eta lo horrez amaituko balitzaizkigu, bihotz-minarekin, haragiari berez datzekion mila ezbeharrak... bai akabera irrikagarria horixe. Hiltzea, lo egitea; lo, ausaz amets egitea: horra hor, bai, koska; ezen, herio-lo horretan zer amets datozkeen bizi-lor hau gainetik ken dezagunean, atzeragarri baitugu noski. Gogoeta horrek du hain luzaro bizirik iraunarazten miseria. Ezen, nork lituzke jasango munduaren ukaldiak, zapaltzailearen makurra, harroaren destaina, maitasun gaitzetsiaren penak, legearen geldoa, kargudunen burgoikeria, eta baliozkoak etsi-etsian eskasarengandik jasotzen dituen purrustadak, berak lezakeelarik bertan kito egin kontuaz sastakai huts batez? Nork lituzke zamok eramango, bizi astun baten nekepean kexu-izerditan, ez balitz heriotzaren —beraren mugatik bidaiaririk itzultzen ez den lurralde ikertu gabe horren— ondorengo zerbaiten ikarak gogoaz aztoratzen digulako eta hobetzat joarazten munduko gaitzak pairatzea, ezen ez oldartzea ezagutzen ez ditugun beste batzuetara? Hala gaitu kontzientziak koldar bilakatzen guztiok; eta hala du deliberoaren jatorrizko kolorea arras gaizkitzen pentsamenduaren zantzu zurbilak, eta hainbat egiteko funts eta munta larrikok horren kariatz du bere oldea bestetaratzen, eta ekintza izena galtzen... Apal dezadan, baina, ahotsa: horra Ofelia ederra. —Ninfa, heure otoitzetan oroit ene hoben gurtiez.

OFELIA.- Ene printze ona, zer modu hainbeste egunetik hona?

HAMLET.- Umilki eskerrak dizkizut; ongi, ongi, ongi.

OFELIA.- Jauna, baditut berorren oroigarri zenbait, aspalditik itzuli nahian nembilenak. Har bitza, bada, arren.

HAMLET.- Ez, ez, nik ez. Nik ez dizut inoiz deus eman.

OFELIA.- Ene jaun ohoragarria, ondo asko dakit baietz, eta haiekin hain hats eztizko hitzak eskaini, non balio handiagoa baitzuten. Urrina galdu baitute, tori oster; bihotz jatorrarentzat opariak baitira baliogabetzen emalearen gogoaz hotz-gogortzean. Horratx, jauna.

---



**B AUKERA.-Antzerki-teoriaren edo -kritikaren gaineko testu bati buruzko iruzkina.**

*Hiru xistera* obraren kritika. Miguel Mihura. Estrella Savirón-ek idatzia (2013ko abendua)

[http://www.agolpedefecto.com/teatro\\_2013/teatro\\_tres\\_sombreros\\_copa.html](http://www.agolpedefecto.com/teatro_2013/teatro_tres_sombreros_copa.html)

Nave 73-k 300 Pistolas antzerki-taldearen HIRU XISTERA aurkezten du 2013ko abenduan

300 Pistolas antzeztaldeak Miguel Mihuraren klasiko honen bertsio ero bat egin du, *vaudeville*aren eta kabaretaren estetikarekin jolasean, eta publikoa partaide bihurtzen du “itzulipurdi hirukoitzaren” gisako batean, non antzeztaldeak, zuzendariak eta aktoreak, nahasirik, bat egiten baitute.

[...] Antzerki-bertsio bat, XX. mendearen hasierako komikoekin, Music Hall-arekin eta barietateekin lotura handiak erakusten dituena. 300 Pistolasek Mihurari eta hark antzerkiarekin zuzen lotura estuari egindako omenaldi bat.

[...] 300 Pistolas antzeztalde txikiak ez du muntaketa askorik bere ibilbidean; gutxi dira, baina ongi zainduak, eta guztiek dute zigilu bereizgarri bat, sor-marka ematen diena. Zigilu berezi bat, sinpatiaz eta freskuraz gainezka, Álvaro Morte zuzendariak bere muntaketei eransten diena.

Oraingo honetan, eta Lope de Vegaren *Ortuzainaren txakurra* obrarekin lortutako arrakastaren ondoren, Miguel Mihuraren *Hiru xistera* aurkezten digute. 1932an idatzitako obra bat da, bere garaian ulertua izan ez zena eta makina bat aldiz antzeztu dena hala antzokietan nola telebistan. Guztiok ezagutzen dugun obra bat da, absurduaren antzerkiaren hiru ardatz bereizgarriak dituena: ez-hitzezkoa, umorea, tratamendu onirikoak; han, kontrako muturretan dauden bi munduk bat egiten dute, eta satira eta umorea emozioarekin eta sentimendu ezinago “melengarekin” tartekatzen dira.

300 Pistolasen beste apustu bat da. Haren bidez, bere bokazioarekin jarraitzen du: klasikoak gertutasunez plazaratzea, modu fresko eta errazean, ikusle gazteenentzat eta publiko orokorarentzat. Eta, hala, barre eragitea eta gozaratzea lortzen du, eta, aldi berean, klasikoen mezua eramatea; kasu honetan, Mihurarena, topikoz eta klixez beteriko gizarte-konbentzionalismoak kritikatzeko dituena.

Eszenaratzea koloretsua da, eta xumea era berean; ikuslea gozaratzen du bere estilo bereziarekin, baina, aldi berean, bidea ematen dio irudimenaren jokoari. Oso egokitzapen garbia da, aldaketaren batekin aitzinsolasean eta azken solasean jatorrizko obrarekiko, 300 Pistolasek aldatua bere metodologiara egokitzeko, baina obraren funtsean batere galerarik eragin gabe. Hala, erakusten digun proposamenak, bere dinamika, abiada, sinkronizazio perfektu eta erritmoagatik, Marx anaien filmetako edozein gogorarazten digu. Sartzeak eta irteteak, galderak eta erantzunak, itzalak eta argiak, dena ezin hobeto sinkronizatuta dago, zuzendaritza-lan bikainaren erakusgarri. Agertokian, Sara Gómez (Paula), Anna Hastings (zenbait), Esteban Jiménez (Don Rosario) eta Álvaro Morte (Don Dionisio) –taldearen zuzendaria ere badena–, antzeztaldeko kideak laurak, eta Carlos de Austria laguntzaile, testu gutxiko baina presentzia etengabeko rol batean.

Estrella Savirón

**Zuzendaritza:** Álvaro Morte. **Jantziak eta eszenografia:** Blanca Clemente. **Koreografia:** Fredeswinda Gijón. **Aktoreak:** Sara Gómez, Anna Hastings, Fredeswinda Gijón, Esteban Jiménez, Carlos de Austria eta Álvaro Morte.